


## Ozeanoren konkista 8. - 11. or.

## 2. saioa

## Helburuak

Ipuineko pertsonaien sinesmenen ulertzea.

## Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Bi edo hiruak</b>	<b>Testua uler ezazu 2</b> - Fitxa "2. Jendea eta Amets" Ikasleek aitzineko saioetan betetzen hasi ziren fitxa osatuko dute ("2. jendea eta Amets"), 10. eta 11. orrialdeak irakurriz.
<b>Ikastalde osoa</b> 	Testua bideo proiektatua izanen da eta jendea eta Amets kalifikatzeko hitz multzoak gainmarkatuko dituzte ikasleek.  <u>Oharrak</u> Pertsonaien potreta eginen delarik azpimarratzen ahalko da: - Amets mutikoa ala neska denetz ez dakigula,  Ilustratzaileak ez dituela herrixka eta herritarrak marraztu, - Amets bakarrik agertzen dela, eta 11. orrialdean hodei baten gainean balitz bezala irudikatua dela-> Zergatik? Hodei gainean ibiltzen ote da ipuinean? Zertako beraz? Ameslaria ote da? - Xakurra, Lagun, "bitxia" dela, ez dela egiazko xakur baten potreta, - Amets eta Lagun segurik pertsonaia nagusiak izanen direla, izendatuak diren bakarrak baitira, - Amets eta Lagun ez direla beste herritarrak bezalakoak.
<b>Ikastalde osoa</b>	<b>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?"</b> Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.


## Ozeanoren konkista 12. - 14. or.

## 3. saioa

## Helburuak

Ipuineko pertsonaien sinesmenen ulertzea.  
Ipuinaren kontatzea.

## Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Binaka</b>	<b>Testua uler ezazu 2</b> Fitxa "3. Ametsen familiakoak & Belagilea"
<b>Ikastalde osoa</b> 	Testua bideo proiektatua izanen da eta ikasleek beren testuan seinaleak gain-marratuz pertsonaien sinesmenak adieraziko dituzte.
<b>Bakarka</b>	Marrazkiak kopiatu edo eginen dituzte.
<b>Binaka</b>	Ikasleek elkarri ipuinaren hastapena kontatuko diote.
<b>Ikastalde osoa</b>	<b>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?"</b> Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.


## Ozeanoren konkista 15. or.

## 4. saioa

## Helburuak

“Zatiak elkarri josiz” jarduera autonomian eramatea.  
 Pertsonaia nagusiaren erabakiaren eta jokamoldearen ulertzea.  
 Ipuinaren segidaren idaztea.

## Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Ikastalde osoa</b> 	<b>Testua uler ezazu 3</b> <b>Zatiak elkarri josiz</b> jarduera eramaten da talde osoan. Jarduera hori behin baino gehiagotan eginga baitute, ikasleek binaka autonomian egin lezakete. Testua xingolatan fotokopiatua izan daiteke eta ikasleek zatiz zati irakurtzen ahal dute eta kontatu.
<b>Bakarka</b>	Ikasleek Ametsen eta xakurraren ibilaldia idatziz asmatuko dute.
<b>Ikastalde osoa</b>	Saioaren bilana: <b>“Zer ikasi duzue?”</b> Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.


## Ozeanoren konkista 16. - 17. or.


## 5. saioa

## Helburuak

Idatzi segidak kanoretsuak direla argumentatzea.  
 Ilustrazioetan inplizitua denaren ulertzea.

## Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Bi edo hirunaka</b>	Irakasleak hautatu segidak banatuko dizkie ikasleei. <i>Ir: “Aitzineko saioan idatzi dituzuen segida batzuk bildu ditut. Irakurriko dituzue eta kanoretsuak direnetz erran beharko duzue. Justifikatu beharko duzue, segida bat kanoretsuak direnetz erabakitzeko testuan eta asmatu segidetan zer seinale kontuan hartzen dituzuen erranez.”</i>
<b>Ikastalde osoa</b> 	Segida asmatuak bideo proiektatuko dira eta bat bestearen ondotik kanoretsuak direnetz justifikatuko.
<b>Ikastalde osoa</b>	<b>Testua uler ezazu 4</b> Ikasleen idazlanean oinarrituz ipuinaren segida zer izan litekeen irudikatu ondoren, irakasleak galdera hau idatziko du arbelean: <b>“Almadia eraiki eta, Ametsek eta Lagunek zer egin zuten lehenik?”</b> Irakasleak 16. orrialdeko zatia irakurriko du: “... buztanetik harrapatzen” erranaldiraino, galderari ihardesteko.

<b>Bakarka eta ondotik binaka</b>	5. <i>Urmaeletik itsasora</i> Fitxa 16-17 orrialdeetako irudiak eta testuak konparatuko dituzue. <i>Ir: "16. eta 17. orrialdeetako irudietan eta testuan desberdin diren elementuak gainmarkatuko dituzue."</i> Irakasleak "5. Urmaeletik itsasora" fitxa banatuko du eta talde osoan adibide bat egingen da.
<b>Ikastalde osoa</b> 	Beharrez elkarrekin zuzenduko duzue. Ametzen jarrera ulertzeko eztabaidatuko duzue.
<b>Bakarka</b>	Ikasleek 16. b) bakarrik egingen dute. Eta ondotik isiltasunean 18. eta 19. orrialdeak irakurriko.
<b>Ikastalde osoa</b>	Saioaren bilana: " <i>Zer ikasi duzue?</i> " Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.


## Ozeanoren konkista 20. - 23 or.

### 6. saioa

#### Helburuak

Balea ihiziaren ezagutzea.  
Ipuineko balea ihizia kronologikoki kontatzea.

#### Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Ikastalde osoa</b>	<b>Testua uler ezazu 5</b> Irakurri aitzin, irakasleak traineru estropadei buruko xehetasun batzuk emanen dizkie ikasleei, eta hiztegia landuko da. (Ikus kirolei buruz dosierra).
<b>Bi edo hiru binaka</b>	"6. Ihizia" Fitxa * Testu zati kopurua ikasleen beharren arabera hautatuko da. Irakasleak talde bat lagun lezake.
<b>Ikastalde osoa</b> 	Ikasleek zatiak bederazka ordenatuko dituzte. Bukaeran, zatiak elkarri josiz jardueran oinarrituz, ikasleek balea ihizia kontatuko dute.
<b>Binaka</b>	Binaka, ikasleek balea ihizia elkarri kontatuko diote testu zatiak erabiliz.
<b>Ikastalde osoa</b>	Saioaren bilana: " <i>Zer ikasi duzue?</i> " Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

## Ozeanoren konkista 24. - 25. or.

## 7. saioa

## Helburuak

Informazioak bakarrik biltzea testuan eta ikasle batekin zuzentzea.

**Ikusirakur** eraikitzea lotura kausalak azpimarratzeko: jendeen pentsamenduaren aldaketa, deskubritzearen ondorioa ulertzea.

## Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Ikastalde osoa</b>	Irakasleak ikasleei orrialde bikoitza irakurriko die.
<b>Bakarka</b>	<b>Testua uler ezazu 6</b> "7. Aurkikuntza" galdetegia
<b>Binaka</b>	Ikasleek binaka zuzen dezakete. <u>Oharra</u> Galdera anitz esplizituak baitira, ikasleek binaka zuzentzen ahalko dute, irakaslea talde batekin egoteko gisan.
<b>Ikastalde osoa</b>	7. Pentsamendu aldaketa Talde osoan <b>Ikusirakur</b> eraikiko duzue arbelean, pertsonaien etiketak eta bunbuiloak erabiliz.
<b>Bakarka</b>	Fitxa osatuko dute.
<b>Ikastalde osoa</b>	Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

## Ozeanoren konkista 26. - 27 or.

## 8. saioa

## Helburuak

Aitzin solasaren eta azken orrialdeen konparatzea: ametsaren seinaleen aurkitzea.  
Ametsen ametsa bunbuiloan marraztea.

## Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Ikastalde osoa</b>	<b>Testua uler ezazu 7</b> 26.-27. orrialdeak irakurriko dituzte eta 6. eta 7. orrialdeekin konparatuko. Ipuinean amets bat kontatzen dela ohartaraziko zaie ikasleei eta seinaleak azpimarratuko dira: - ilustrazioetan: dutxulua, ahatea, balea - testuan, "bainuontzi" hitza aitzin solasean agertzen zen...  Ondotik liburuan beste seinaleak xerka litezke (Amets laino batean, 16. eta 17. orrialdeak )

<b>Bakarka</b>	<b>Testua uler ezazu 7</b> Ikasle bakoitzak Amets marraztuko du, eta hauraren ametsa bunbuilo batean. Ondotik amaren deia idatziko beste bunbuilo batean.
<b>Ikastalde osoa</b>	<b>Ahoz adieraz ezazu</b> Historian zehar izan diren beste aurkikuntzak zerrendatuko dira. Bizpahirunaka, ikasleek aurkikuntza bat hautatuko dute.
<b>Binaka Hirunaka</b>	Xehetasunak xerkatuko dituzte, nota batzuk idatziko. - Zer ikertzaile? Noiz bizi izan zen? - Garai hartan, jendeen sinesmenak zien ziren? - Zer aurkitu zuen? - Zer aldatu zen gizartean? Jendeen erreakzioa? Bizi moldea?  Astean zehar talde batek ikastaldeari aurkeztuko dio.
<b>Ikastalde osoa</b>	<b>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?"</b> Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

## Ozeanoren konkista ?? or.

### 9. saioa

#### Helburuak

Aurkitzaile bati buruzko xehetasunen biltzea.  
Nor bere notetan oinarrituz aurkezpenaren egitea.

#### Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Ikastalde osoa</b>	<b>Ahoz adieraz ezazu</b> <i>Ir: "Ipuin honetan bezala, historian, aurkikuntza batzuk oso garrantzitsuak izan dira, sinesmenak gainditzeko. Gizon-emazteen ikerketa edota aurkikuntzei buruz irakurriko dituzue, nota batzuk hartuko eta ondotik ikastaldeari aurkeztuko diozue."</i>
<b>Taldeka</b>	Irakasleak dokumentuak banatuko dizkie ikasleei, edo interneten xerka lezakete. Argazki batzuk hautatzen ahalko dituzte eta notak batzuk hartzen. Aurkezpenaren egiten trebatuko dira behin baino gehiagotan.
<b>Ikastalde osoa</b>	Ikasleek taldeka beren lana ikastaldeari aurkeztuko diote.
<b>Ikastalde osoa</b>	<b>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?"</b> Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.